

# Laudioko Txosna Batzordearen komunikatua

Orain dela hilabete eskas, uztailaren hasieran, udal gobernu taldeak Laudioko jaietan txosnen eremua lau urtez izan den Aldai Plazatik lekuz aldatzeko erabakiaren berri eman zigun Txosna Batzordeko ki-deoi. Adierazi zutenaren arabera, erabakia irmoa zen eta ez zegoen atzera botatzeko aukerarik. Aipatu behar da erabakia txosnen egitaraua, azpiegitura eta espazio osoa planifikatuta zegoenean heldu zela.

Arrazoi teknikoak argudiatu zituzten txosnen leku aldaketa justifikatzeko. Zumalakarregi etorbidea, zalantzakorrek diren segurtasun arrazoiak tarteko, jai egunetan irekita uztea erabaki dute eta, ondorioz, bertan aktibitatea garatzen zuten taldeentzako leku berria behar da. Behar horri erantzunez, udal gobernu taldeak Baserritar Egunekeo azoka eta Gastronomia Txapelketa orain artean Laudioko txosnen gunea izan den Aldai Plazan kokatzea erabaki du.

Laudioko Txosna Batzordeak hasieratik irtenbide egoki bat bilatzeko prestutasuna erakutsi du. Guretzat ez zen udal gobernu taldeak argudiatutako arazorik existitzen. Izan ere, Aldai Plazan bai txosnetarako nola azoka zein txapelketarako lekua soberan dagoela uste dugu. Are gehiago: ondo irizten diogu beste talde eta eragileek espazio hori erabiltzeari, urte luzez Udalaren esku hartzerik gabe eta eragileen arteko elkar ulertzez egin izan dugun bezala. Hori izan baita Laudioko Txosna Batzordeak bere oinarri eta baloreetan duen elkar laguntza sustatzeko aurrera eraman izan duen praktika koherentea, eragile desberdinekin espazioaren erabilera adostea, orain guri ez dagozkigun erabakiek zapuztu dutena.

Aipatutakoarengatik, Txosna Batzordetik argi dugu argudio teknikoan atzean ezkututzen dena Laudioko txosnen eta, orokorrean, elkartasunean eta atsegin ez dituzten baloreetan oinarritutako praktika kolektiboen aurkako erabaki politikoa dela. Izan ere, eragileen arteko elkarlana eta ulermena oztopatzea xede, udal gobernu taldeak berak aldarrikatu du, bere ekintzekin, kolektiboaren ordezkari bakarra bera dela.

Erabaki horretan, gainera, urte luzez jaiei ekarpena egin dien eragile anitzen elkarte den Txosna Batzordearekiko errespetu falta nabarmena agerikoa da. Harro esan dezakegu, erabaki guneetatik kanpo uzten gaituzten arren, mutu nahi dituzten eragile horien guztien lanaz eta elkarlanaz Laudioko jaien egitarauaren zati handia antolatzen dugula. Horregatik, oso arriskutsua iruditzen zaigu Laudioko talde, eragile eta elkarten lanarekiko mespretxua sustatu dezakeen udal gobernu taldearen praktika honek ezarri berri duen aurrekaria. Argi aldarrikatzen dugu herritarron lanaren emaitza diren eragileei errespetua zor zaiela. Ez dugu berriz Udalaren partetik horrelako jarrerarik errepikatzea onartuko.

Hau esanda, aurten ere txosnak jarriko ditugu, kokaleku berrian: Aldai Plazaren atzean dagoen futbito zelaian. Zinez uste baitugu elkarlana oinarri duen filosofia sustatzen jarraitu behar dugula. Trabarik traba, gure baloreen eta egiteko moduen alde lanean jarraituko dugu, eta gurekin lan egitera gonbidatzen ditugu Laudioko talde, eragile eta elkarteak. Txosna Batzordea, kolektibo desberdinez osatuta dagoen elkarte, zuentzat ere irekita baitago.

Kalean ikusiko dugu elkar!

Gora jai parte-hartzaileak! Gora Laudioko Txosna Batzordea!

